

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Volkswagen Academyko ikasleek aprendiz diplomak jaso dituzte gaur

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza departamentuarekin elkarlanean, 23 ikaslek amaitu dute Volkswagen Navarrako aprendiz programako bosgarren edizioa

Asteartea, 2017.eko abenduak 12

Hezkuntza kontseilari Maria Solanak parte hartu du gaur Volkswagen Academyren diploma banaketa-ekitaldian, Volkswagen Academyko zuzendari Susanne Delleit eta Alemaniak Espainian duen Merkataritzako Ganberako Lanbide Heziketa Dualeko arduradun Tanja Nausekin batera. Ekitaldia Volkswagen Academyren egoitzan egin da,



Maria Solana kontseilaria Volkswagen Academyko ordezkari eta ikasleekin.

Volkswagen-Landaben enpresan bertan. Iazko irailean hasi zuten 1.600 orduko gradu ondokoa ikastaroa. Eta hiru agiri jaso dituzte gaur: Nafarroako Gobernuak emandako ziurtagiria, Volkswagen-Academyrena eta Alemaniako Merkataritzako Ganberaren delegaritzarena; ikasleak urtebeteko praktika-aldia egiten ari dira gaur egun.

Volkswagen Academyk, Hezkuntza sailarekin batera, egiten dituen espezializazio ikastaroan aritu dira seigarrenez lanbide heziketako ikasleak. Aurten 23 ikasle; Maria Solana Hezkuntza kontseilariaren, Susanne Delleit Volkswagen Academyko zuzendariaren eta Tanja Nause Alemaniak Espainian duen Merkataritza Ganberako Lanbide Heziketa Dualeko arduradunaren eskutik jaso dituzte diplomak.

Hezkuntza kontseilariak Volkswagen enpresaren eta erakunde publikoaren artean izandako elkarlana nabarmendu du, "lanbide heziketako ikasleei Nafarroan automobilgintzan erreferente den enpresan formazioa jasotzeko aukera paregabea eskaintzen baitie". Ikasleek Departamentuaren agiriak eskuratzen dituzte, ikastaroaren ordu kopurua eta jasotako formazioa zehaztuz. Solanak, halaber, eskerrak eman dizkie 23 ikasleei zein Volkswagen Academyri, "hiru urteetan ekimen hau garatu izana aurrerapauso garrantzitsua baita gaur egungo ekoizpen prozesuetan beharrezkoak diren perfil profesionalak garatzeko bidean".

Volkswagen Academyko zuzendari Susanne Delleitek lanbide heziketa dualak Alemanian duen "ohitura" azpimarratu du, garrantzi handia du Volkswagen Navarran aprendiz programako bosgarren edizioko

diplomak banatzen egoteak, eta seigarren programa jada martxan izateak, gainera hbertan lehendabizikoz emakume bat ari da parte hartzen”, gaineratu du Dellitek. Tanja Nause, Alemaniak Espainian duen Merkataritza Ganberako Lanbide Heziketa Dualeko arduradunak berriz baikorki baloratu du, “Nafarroako Gobernua, Ganbera, ikastetxeak, enpresa eta sindikatuen artean Lanbide Heziketa duala aurrera eramateko dagoen elkarlana”. Alemanian urteko miloi erdi gaztek formazio dualaren aldeko apustu a egiten dutela gaineratu du.

2012-2013 ikasturtean abiarazi zen programa Volkswagen Navarrarekin elkarlanean. Izan ere, formazioa Nafarroako Lanbide Heziketa zentroetan eskaintzen den formazioaren osagarri da. Kasu honetan, Volkswagen Navarrak duen automatizazio prozesu altura moldatu eta egokitze gaitasuna eskuratzen dute ikasleek. 2012an bi aldean artean hasitako hitzarmenak lanbide heziketako gradu erdiko zein goi mailako ikasleek automobilgintzako ekoizpen prozesuak ezagutzeko ikastaro zehatzak egiteko aukera jasotzen du. Zehazki, garatutako ikastaro zehatzak honakoak izan dira: industria automatizazio aditua; industria mekatronika aditua; trokelgintza eta moldeen eraldaketa aditua; mekatronika automobilgintza aditua; automobilen azalera aditua.

Esther Monterrubio Lanbide Heziketako zuzendariak azaldu duenez, “lehendabiziko hiru espezializazioak goi mailako ikasleei daude zuzenduak; azkeneko biak erdi mailako lanbide heziketa amaitu duten ikasleei”. Batez ere praktikak enpresa barruan egin dituzten ikasleen artean egiten da ikasle aukeraketa eta ikastaroa Volkswagen Academyk Landabengo poligonoan duen enpresan egiten da. Formazioari dagokionez, Volkswagen Academyn egiten dira 600 ordu eta 400, berriz enpresan, Industria Automatizazio, Industria Mekatronika Trokelgintza nahiz moldeen eraldaketa espezializazio ikastaroetan, 1024 ordu Academyn, eta 582 ordu Automobilen Mekatronika eta Automobilen Azalera adituen ikastaroan. Ekoizpen prozesu berrietan beharrezkoak diren perfil profesionalak garatzeko bidean aurrerapauso handia da hirugarren urtean lanbide heziketako ikasleek jasotzen duten formazioa.

Gradu ondokoak irauten duen 24 hilabeteetan, ikasleek lan kontratua dute. Lehen bederatzi hilabeteetan formazioko 1.600 ordu jasotzen dituzte (1.000 ordu ezagutza teorikokoak eta 600 ordu praktikoak); ondoren, egun bosgarren edizioako ikasleak dauden programa honetan, urtebeteko praktikalaldia, enpresan. Formazio epealdiarekin amaitu ostean, ikasleek Volkswagen Navarran lanean geratzeko aukera dute. Hain zuzen ere, aurreko lau edizioetan parte hartu duten ikasleen %90 (79tik 71) Volkswagen Navarrako enpresako langileak dira.

Ehunka profesional baino gehiago

Volkswagen Academyk eskaintzen dituen ikastaroetan parte hartu duten ikasleek gain, ikasturte honetan 23 gazte ari dira hezkuntza programan. Modu honetara, ehun ikasletik gora izan dira ikastaroetan. Nafarroako lanbide heziketa zentroetako ikasleak aritu dira VW Academy: Tuterako ETI, Donibane LHI, Lizarra LHI, Lumbier LHI, Donapea LHI, Virgen del Camino LHI, Tafalla LHI, Ribera del Arga, Ribera del Arga BHI, Sakana LHI, Toki Ona LHI eta Salesianos LHI.

Alemaniko ganberako frogak

Espezializazioko formazio hau Alemaniko Merkataritzako Ganberak errekonozitua da, modu honetara Ganberak bi urtetan zehar gidatutako eta zehaztutako azterketak gaindituz gero,

Alemaniko lanbide heziketako titulu ofizialak jasotzen dituzte ikasleek. Gaurko ekitaldian, 23 ikasleei diplomak ematearekin batera, Alemaniko Merkataritza Ganberak egiten dituen frogei hasiera eman zaie. Abenduaren 15a bitartean egingo dituzte ikasleek froga hauek.

Gainera, ikastunen programa honen baitan, Alemaniak Espainian duen Merkataritzako Ganberak Volkswagen Navarrari “Empresa formadora de la cámara alemana” kalitatezko zigilua eman dio. Zigilu honekin enpresak Alemaniko lanbide heziketa dualak ezartzen dituen ezaugarriak betetzeko lana eta esfortzua aitortu dio.

Diplomak jaso dituzten ikasleak

Diplomak eskuratu dituzten ikasleen zerrenda: Iosu Esquíroz Redín, Daniel Herrera Castillo, Sergio Matute Gormedino, Unai Izuriaga Barón, Aratz Pérez Orbara, Víctor León Arteta, Mikel González Oroz, Andoni Izarra Eraso, Mikel Pérez Baleztana, Óscar Duque Albéniz, Jon Pérez Aranguren, Asier Barburu Echeverría, Francisco Javier Pérez Ochoa, Sergio Vegas Gómez, Raúl Fabo Mora, Javier Cubel López, Alberto Cascán Hueso, Álvaro Gómez Salicio, Víctor García Platero, Iñaki Lebrero Drona, Jonan León Vaquero, Iker Resa Ahechu y Jesús Lenzano Viela.